

Maritxu Larzabal Duperou

PIARREZ LARZABAL
KOLEGIOKO ANIMATZAILEA



HERRIKO ELKARTEEN BUELTAN

Euskalduna da Maritxu. Lapurtarra baina, kasu, ez edonongoa: urruñarra. %100 urruñarra gainera. Hala azpimarratu ohi dute bertakoek. "Gazte denboran euskarekiko 'klik' bat izan nuen, zendu zen osaba bati esker. Etxean ikasi nuen euskaraz, ez naiz ikastolatik pasatakoa. Eta ikasketetan murgildu ahala, galtzen hasi nintzen. Ez nuen nahi, ordea. Beraz, AEKn sartzea erabaki nuen, baita herriko beste zenbait elkarteetan ere, eta horrek euskaldunago sentitzen lagundu ninduen. Hartzen eta ematen ikasi nuen elkarteetan izan nuen inplikazio garaian", azaldu du. Urruña ezagutzeko elkartearen bueltan egoteak ekarpen handia egiten duela dio, "herritarra sentitzen" laguntzen duelako. Herriaren behar eta interesak ezagutzen. Egun, beste elkarte batzuetatik jarraitzen du herriaren bizitza: "Denborak aurrera egin du, orain ama naiz eta haien aisialdiaren bueltako elkarteetan parte hartzen dut".

"Gure helburua euskaraz ikastea da eta ez euskara ikastea"

Hogei urte ditu jada Piarrez Larzabal kolegioak. Seaskaren bigarren kolegioa izan zen, gaur egun laudaude jada. Honek, ordea, badu berezitasun bat: ireki orduko, bertako guraso elkarteak animatzaile postu bat sortzea deliberatu zuen. Maritxu Larzabal Duperou (1978, Urruña) horrela iritsi zen bertara. Urruñarra, gaztea eta euskalduna. Urruñako Trinkete ostatuan izan dugu solasaldia, etxean sentitzen da bertan. Kolegioko jardunaz, garapenaz eta elkartasunaz hitz egiteko denbora izan dugu.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

Piarrez Larzabal kolegioa abiatu zenetik zaude bertan lanean animatzaile bezala.

1999. urtean hasi nintzen, kolegioa bera ireki zen une berean. Seaskaren bigarren kolegioa zen garaian: Xalbador Kanbon eta Piarrez Larzabal Ziburun. 70 ikasle ziren orduan eta egun 300 baino gehiago gara. Ziburuko marinela auzoan hasi zen dena, itsas lizeoarena izan zen egoitza zaharra erabili genuen kolegio gisa 2005a arte. Gaur egun bertatik pasatu eta ez dago deus. Gezurra dirudi kolegio bat egon zenik bertan. Baina guk oroitzapen eta anekdota ugari dugu gogoan. Uholdeak izaten genituen etengabe, arratoiak, pixa usaina... baina hain gutxi izateak batu egin gintuen eta giroa oso ederra zen. Gaur egun ez dugun berezitasun bat zuen. Egun ere oso ongi gaude, dena berria da eta itsas lizeoaren ondoan gaude berriz. Lapurdi kostaldeko kolegioa gara, eta izugarri emendatzen da haur kopurua. Hori oso baikorra da euskararen etorkizunerako. Baina hain

handia izateak baditu bere alde on eta txarrak.

Zure animatzaile lana nola aldatu da garai hartatik?

Asko aldatu da. Denbora guztia talde txiki horrekin pasatzen nuen. Jolas garaietan tailer ugari egiten genuen. Irrati tailerrak egiten genituen, inauteriak ospatu... denak gogoratzen ditut irriz, kantuz eta alai. Jende ospetsua gonbidatzen nuen egun seinalatuetan etor zitezten eta pozik hurbiltzen ziren gurea. Erreferente euskaldunak eskaintzen genizkien ikasleei. Gaur egun ezinezkoa da, gehiegi gara. Ezin duzu 300 ikaslerekin atera. Ez da hobe edo okerragoa, ezberdina baizik. Baina segitzen dugu beti aitzina, eta hemen ere egiten ditugu bestak, jendea gonbidatzen segitzen dugu...

Gaur egun beste hiru kolegio ditu jada Seaskak, baina zurea da animatzaile postu bakarra. Nolatan? Norekin konpartitzen



"LAPURDI KOSTALDEKO KOLEGIOA GARA, ETA IZUGARRI EMENDATZEN DA HAUR KOPURUA. HORI OSO BAIKORRA DA EUSKARAREN ETORKIZUNERAKO".

dituzu laneko arrangurak, formakuntzak?

Ni ez naiz Seaskako langilea, kolegio honetako guraso elkartearen enplegatua baizik. Horren aldeko apustua egin zuten eta apustuari eutsiz segitzen dute, beharrik! Hasi berria nintzenez hezikuntza aholkulariarekin –erretiratu da jada– egiten nuen lan asko. Oso harreman estua genuen eta elkar elikatzen ginen. Bestalde, gainontzeko Seaskako hezitzaileekin harremanetan nago beti. Formakuntzak edo pedagogia egunak antolatzen direnean ere joaten naiz. Ez naiz hain bakarrik sentitu, hezitzaile ugari baikalde lau kolegioen artean. Animazio arloan aldiz, bakarra naiz, bai. Ikastegian zer nahi duten behatzen dut beti, ikasleekin batera.

Piarrez Larzabal kolegioak, Urruñako ikastolarekin batera, Ordiziako ikastolarekin harreman estua du. Zer dela eta?

Iparra Hegoa elkarte izan da harreman honen bitartekaria. Ikusgarriak, kontzertuak... antolatzen ditugu urtero, jada tradizio bilakatu direnak eta gu-

retzako ezinbestekoak. Oso polita da, elkartasunak batzen gaituelako. Beharra duenari laguntzea da harremanaren helburua. Izugarritzko laguntza ematen digute eta horrek bihotza berotzen du. Beharrak beti hor baitaude. Aldi berean, horri esker deskubritzen ditugu guk ere hainbat artista, hainbat talde... Eman eta hartu, hartu eta eman. Hori da lotura aske honen funtsa.

Nola ikusten duzu egun nerabeen mundua?

Hizkuntza aldetik, gurean, denetarik dago. Haur gehienek euskara dute etxetik, baina badira asko eta asko egoera horretan ez daudenak. Guraso batzuek beren haurrak euskaraz ikastera ekartzen dituzte eta beste batzuek euskara ikastera. Azken hori ez da gure asmoa. Euskara hemendik kanpo ere ikasi daiteke. Gure helburua euskaraz ikastea da eta ez euskara ikastea. Ikasleak euskararen mundura eramatea, euskaraz.

Denbora libreari dagokionez, kolegioa ezin dute sakelakorik ekarri. Badakigu gaur egun dena pantailen bitartez pasatzen dela. Kontziente gara, baina hain

justu nire lanpostuari esker, bestelako jardunak antolatzen ditugu: mahai-jokoak, kantu tailerrak, dantzak, mus txapelketa... Pantailen kontua gainontzeko sektoreak bezala lantzen dugu. Modu ludikoan eta adituekin.

Lanean emandako hogeitaz urteek markatu dute zerbait zugan?

Bai, jarraitu behar ote dudan galdeztzen diot nire buruari. Nik hala ere ongi pasatzen dut ikasleekin. Baina jada zaharregia ez ote naizen pentsatu izan dut batzuetan. Dena dela, bada beti atxikimendu bat. Ikasle bat zerbait antolatzeko gogoz zugana heldu dela ikustean, edo zuk antolaturiko horretan parte hartzeko irrikaz, edo gurasoek eskertzen didatenean halako edo besteko antolatu izana, horri esker beren haurraren emaitza ikusi dutelako... Beti dago su txiki bat eta itzaltzen ari dela sumatu arren, berriz pizten da. Lanean ongi pasatzea ederra da, eta hobe hala, bertan pasatzen baitugu denbora gehiena. Lan guztiek bezala honek ere baditu alde onak eta txarrak. ●